

EGUBERRIKO VII. XAKE TXAPELKETA.

(2018ko abenduaren 26tik 30era).

Iruñeko Oberena Kirol Elkartean jokatu zen. 90 minutuko 6 partida izan ziren (gehi 30 segundo jokaldiko).

AZKENEKO SAILKAPENA, SEI TXANDA JOKATUTA.

- 1) **Pablo Urriza Iricibar (Nafarroa, Euskal Herria) (2.268) – 6 puntu.**
- 2) **Javier Cinza Lopez (Galizia, Nafarroan bizi dena) (2.083) – 5'5 puntu.**
- 3) **Pedro Viñal Gutierrez (Espainia, Nafarroan bizi dena) (2.042) – 5 puntu.**
- 4) **Haizea Salvatierra Alzorriz (Nafarroa, Euskal Herria) (1.687) – 5 puntu.**
- 5) **Rafael Ruiz Escobar (Espainia, Nafarroan bizi dena) (1.891) – 4'5 puntu.**
- 6) **Gregorio Sola Plaza (Nafarroa, Euskal Herria) (1.804) – 4'5 puntu.**
- 7) **Oier Lacruz Ochoa (Nafarroa, Euskal Herria) (1.787) – 4'5 puntu.**
- 8) Miguel Argaya Urdaniz (Nafarroa, Euskal Herria) (1.928) – 4'5 puntu.
- 9) **Javier Lizuain Toni (Nafarroa, Euskal Herria) (1.806) – 4'5 puntu.**
- 10) **Sostenes Rodriguez Montes (Nafarroa, Euskal Herria) (1.810) – 4'5 puntu.**
- 11) Martin Pascual Garcia (Nafarroa, Euskal Herria) (1.856) – 4'5 puntu.
- 12) Leyre Abrisqueta Zudaire (1.726) – 4 puntu.
- 13) Joseba Otano Villanueva (1.686) – 4 puntu.
- 14) Odei Lerendegi Lasa (2.121) – 4 puntu.
- 15) Carlota Aramendia Ybarra (1.501) – 4 puntu.
- 16) Iago Arregui Gonzalez (1.235) – 4 puntu.
- 17) Ekain Galarza Arza (1.255) – 4 puntu.
- 18) Spas Lyubenov Kenoliev (1.609 euskal elokoa) – 4 puntu.
- 19) Pablo Mugica Arratibel (1.406) – 4 puntu.
- 20) **Javier Riezu Resano (1.431) – 3'5 puntu.**
- 21) Andres Malon Insausti (1.896) – 3'5 puntu.
- 22) Adolfo Ruiz Anton (1.532) – 3'5 puntu.
- 23) Ismael Anton Reparaz (1.541) – 3'5 puntu.
- 24) Paula Iribas Garayoa (1.166) – 3'5 puntu.
- 25) Adrian Oroz Carrasco (1.449) – 3'5 puntu.
- 26) Daniel Mugica Arratibel (1.642) – 3'5 puntu.
- 27) Juan Sancifena Arpide (1.636) – 3'5 puntu.
- 28) **Adriana Iribas Garayoa (1.069) – 3'5 puntu.**
- 29) Ander Miranda Zapata (1.598 euskal elokoa) – 3'5 puntu.
- 30) Laura Riezu Resano (1.163) – 3'5 puntu.
- 31) Haymar Leone Amigot (1.394) – 3 puntu.
- 32) Venancio Gilabert Pastor (1.310) – 3 puntu.
- 33) Diego Moral Barragan (1.633) – 3 puntu.
- 34) Daniel Vicente Merino (1.161) – 3 puntu.
- 35) Miguel Adrian Abad (1.409) – 3 puntu.
- 36) Miguel Angel Pascual Buisan (1.108) – 3 puntu.
- 37) Niobe Arrgeui Gonzalez (1.111) – 3 puntu.
- 38) Iñigo Ayucar Nuñez (1.245) – 3 puntu.
- 39) Axel Roviralta Montero (1.814) – 3 puntu.
- 40) Unax Senosiain Noriega (1.053) – 3 puntu.
- 41) Unai Lizaso Lacalle (eloric gabe) – 3 puntu.

- 42) Zigor Ruiz Jaso (1.205) – 3 puntu.
- 43) Martin Perez Azanza (1.106) – 3 puntu.
- 44) Miguel Iribas Garayoa (1.172) – 3 puntu.
- 45) Jose Javier Villanueva Arribas (1.304) – 2'5 puntu.
- 46) Esteban Indurain Eraso (1.449) – 2'5 puntu.
- 47) Jaime Garcia Urdaniz (1.733 euskal elokoa) – 2'5 puntu.
- 48) Asier Ayucar Nuñez (1.091) – 2'5 puntu.
- 49) Asier Tirapu Molina (1.615 euskal elokoa) – 2'5 puntu.
- 50) Irati Perez Azanza (1.089) – 2'5 puntu.
- 51) Keira Arregui Gonzalez (1.542 euskal elokoa) – 2'5 puntu.
- 52) Pablo Yoldi Usechi (elorik gabe) – 2'5 puntu.
- 53) Aitor Ibañez Macias (1.281) – 2 puntu.
- 54) Julen Ibañez Macias (1.219) – 2 puntu.
- 55) Atia Arregui Gonzalez (1.057) – 2 puntu.
- 56) Eduardo Aramendia Arzo (1.516 euskal elokoa) – 2 puntu.
- 57) Daniel Aguinaga Garijo (1.412) – 2 puntu.
- 58) Angel Esparza Toni (elorik gabe) – 2 puntu.
- 59) Fermin Yoldi Usechi (elorik gabe) – 2 puntu.
- 60) Aitor Esparza Toni (elorik gabe) – 2 puntu.
- 61) Oihan Ciganda Garcia (elorik gabe) – 2 puntu.
- 62) Iñigo Zulaica Cajas (elorik gabe) – 2 puntu.
- 63) Francisco Javier Garisoain Lerendegui (elorik gabe) – 2 puntu.
- 64) Tomas Yoldi Usechi (elorik gabe) – 2 puntu.
- 65) Christian Medrano Malon (elorik gabe) – 2 puntu.
- 66) Felipe Martin Marin (elorik gabe) – 2 puntu.
- 67) Iñaki Hernandez Sabate (1.024) – 1'5 puntu.
- 68) Luken Galarza Arza (1.599 euskal elokoa) – 1'5 puntu.
- 69) Fermin Martinez Benito (1.003) – 1'5 puntu.
- 70) Gaizka Gilabert Serna (1.497 euskal elokoa) – 1'5 puntu.
- 71) Raul Burriel Ureta (elorik gabe) – 1'5 puntu.
- 72) Jorge Suescun Ocariz (elorik gabe) – 1'5 puntu.
- 73) Iñaki Mutilva Fernandez (1.700 euskal elokoa) – 1'5 puntu.
- 74) Daniel Aiciondo Perez (elorik gabe) – 1'5 puntu.
- 75) Miguel Yoldi Usechi (elorik gabe) – Puntu bat.
- 76) Maksim Unku labloskii (elorik gabe) – Puntu bat.
- 77) Raul Ovelar Barreiro (elorik gabe) – Puntu bat.
- 78) Julia Izu Eslava (elorik gabe) – 0'5 puntu.
- 79) Lucia Suescun Ocariz (elorik gabe) – 0'5 puntu.

SARIAK.

Pablo Urriza Iricibar lehenengo sailkatuarentzat: 250 euro.

Javier Cinza Lopez bigarren sailkatuarentzat: 150 euro.

Pedro Viñal Gutierrez hirugarren sailkatuarentzat: 100 euro.

Gregorio Sola Plaza seigarren sailkatuarentzat: 50 euro (laugarrenentzako saria).

Haizea Salvatierra Alzorritz torneoko lehenengo emakumearentzat: 100 euro. **Leyre Abrisqueta Zudaire** bigarrenentzat: 50 euro.

Rafael Ruiz Escobar torneoko lehenengo beteranoarentzat: 100 euro. **Sostenes Rodriguez Montes** bigarrenentzat: 50 euro. Pedro Viñal Gutierrez aurretik geratu zen, baina hirugarrenentzako saria jaso zuen.

Oier Lacruz Ochoa torneoko 18 urtez azpiko lehenengoarentzat: 100 euro. **Javier Lizuain Toni** bigarrenentzat: 50 euro.

Javier Riezu Resano torneoko 12 urtez azpiko lehenengoarentzat: 100 euro. **Adriana Iribas Garayoa** bigarrenentzat: 50 euro.

PABLO URRIZA IRICIBAR GARAILE, FIDE MAISUA BIHURTZEKO BIDEAN



Lehenengo hiru sailkatuak: Javier Cinza Lopez (bigarren), Pablo Urriza Iricibar (lehenengoa) eta Pedro Viñal Gutierrez (hirugarren).

Pablo Urriza Iricibar 23 urteko Orvinako jokalaria favorito nagusia zen txapelketa hasi aurretik, oraingo Nafarroako txapelduna delako eta elorik garaiena zuelako (147 puntutan gainditzen zuen Odei Lerendegui Lasa bigarren zerrendaburua). Ez zuen ustakaberako zirrikiturik utzi eta zazpi partidak irabazi zituen, Adolfo Ruiz Antonekin estuasunak igaro bazituen ere. Torneoa irabazteko gainditu behar izan zituen aurkarien zerrenda ez zen makala izan: Paula Iribas Garayoa (1.166), Adolfo Ruiz Anton (1.532), Gregorio Sola Plaza (1.804), Andres Malon Insausti (1.896), Rafael Ruiz Escobar (1.891) eta Pedro Viñal Gutierrez (2.042). Horrela, 12'80 puntu irabazi zituen eloan eta FIDE Maisua bihurtzeko hurbilago dago orain (2.281 puntu ditu, 2.300etik oso hurbil).

Pedro Viñal Gutierrez 66 urteko Oberenako jokalaria ere txapelketa ederra egin zuen. Lehenengo bost partida irabazita, lider moduan ekin zion azkeneko neurketari. Pablo Urrizaren aurka hondoratu zen eta hirugarren bukatu zuen, baina torneo handia eginda. 7'80 puntutan hobetu zuen bere eloa.

Javier Cinza Lopez 39 urteko Orvinako jokalaria bere txapelketa kutuna du Eguberrikoa. Aurreko bi edizioetan irabazi zituen. Honetan, Adrian Oroz Carrascoren aurka bigarren txandan egindako berdinketa garesti ordaindu zuen (galtzekotan ere egon zen). Nahikoa, titulutik aldentzeko. Dena den, azken momentuan Pedro Viñal aurreratu zuen sailkapenean eta bigarren postua eskuratu zuen. Eguberriko azkeneko lau torneoetan lau aldiz sartu da podiumean, hirugarren, bigarren eta bi aldiz lehenengoa geratuta.

Haizea Salvatierra Alzorriek ustekabea eman zuen. Mikel Gureako 15 urteko jokalaria neskarik onena izan zen eta laugarren postuan amaitu zuen. Parekaketak lagundu zion, baina meriturik egin gabe ez da ezer lortzen. 28'40 puntu gehitu zion bere eloari.

Rafael Ruiz Escobar, 69 urte beteta ere, goian ibiltzeko gai da oraindik. Bosgarren geratu zen Mikel Deunako jokalaria eta lehenengo beteranoarentzako saria erdietsi zuen (Pedro Viñalek beste sari bat eskuratzeagatik izan bazen ere). Honek ere eloa irabazi zuen: 10 puntu.

Rafael Ruiz Escobarrekin batera, 4'5 puntuz, beste sei jokalaria geratu ziren. Gregorio Sola Plaza, Oier Lacruz Ochoa, Javier Lizuain Toni eta Sostenes Rodriguez Montes jokalariek saria jaso zuten.

Leyre Abrisqueta Zudaire izan zen elorik gehien irabazi zuena (57'60), nahiz eta azkeneko bi partidak galdu. Eloa irabazteko tenorean beste jokalaria batzuk ere nabarmendu ziren: Oier Lacruz Ochoa (50'80), Haymar Leone Amigot (47'60), Ekain Galarza Arza (30), Venancio Gilabert Pastor (29'60), Adriana Iribas Garayoa (27'60), Paula Iribas Garayoa (27'20), Iago Arregui Gonzalez (22'80), Laura Riezu Resano (22) eta Adolfo Ruiz Anton (21'80), batez ere

Beste batzuek ez dute ongi gogoratuko torneooa, gaizki joan baitzitzaien, eloa galduta: Axel Roviralta Montero (32), Odei Lerendegui Lasa (30'40), Miguel Adrian Abad (29'60), Andres Malon Insausti (28'80), Martin Pascual Garcia (25'60), Atia Arregui Gonzalez (24'40) eta Diego Moral Barragan (23'40), besteren artean.

Baita ere azpimarratzekoa da aurreko urtean baino 30 xakelari gehiago aritu zirela. Horrek eta txanda bat gutxiago jokatzeko huts egiteko tartea murriztu zuen. Azkenean, Javier Cinza Lopez izan zen kaltetu nagusia, torneooa bera eta Urrizaren arteko partida gabe geratu baitzen.

TXAPELKETAREN HISTORIA.

2012an, I. edizioan: **Miguel Navarro Cia** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Pablo Urriza Iricibar** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Mikel Ortega Lopez** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2013an, II. edizioan: **Ivan Tetimov** (Bulgaria, Iruñeko Donibane Kirol Elkartekoa), txapeldun; **Mikel Garjon Modrego** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Jose Zaratiegui Cardesa** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2014an, III. edizioan: **Miguel Argaya Urdaniz** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Jose Miguel Ugalde Ezkurra** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Pablo Urriza Iricibar** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2015ean, IV. edizioan: **Jesus Luis Aguinaga Ruiz** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Rafael Ruiz Escobar** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), hirugarren.

2016an, V. edizioan: **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), txapeldun; **Adrian Aldave Aguado** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Javier Lizuain Toni** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2017an, VI. edizioan: **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), txapeldun; **Javier Lizuain Toni** (Nafarroa, Euskal Herria), bigarren; **Martin Pascual Garcia** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

2018an, VII. edizioan: **Pablo Urriza Iricibar** (Nafarroa, Euskal Herria), txapeldun; **Javier Cinza Lopez** (Galizia, Nafarroan bizi dena), bigarren; **Martin Pascual Garcia** (Nafarroa, Euskal Herria), hirugarren.

PALMARESA.

- 1) **Javier Cinza Lopez (Galizia, Nafarroan bizi dena) – 2 titulu.**
- 2) **Jesus Luis Aguinaga Ruiz (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 3) **Miguel Argaya Urdaniz (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 4) **Miguel Navarro Cia (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**
- 5) **Ivan Tetimov (Bulgaria, Nafarroan bizi dena) – Titulu bat.**
- 6) **Pablo Urriza Iricibar (Nafarroa, Euskal Herria) – Titulu bat.**

2018-12-30.

Iturria: "<https://info64.org/torneo-navidad-navarra-2018/standings>".